**Sail Egitarau Txostena - GASTUAK**
***Memoria Departamento Programa - GASTOS***

| SAILA / *DEPARTAMENTO* | ATALA / *SECCIÓN* | FUNTZIONALA / *FUNCIONAL* |
|---|---|---|
| **08. Ekonomia Sustatzeko**<br>**08. *Promoción Económica*** | **02.** Berrikuntza<br>**02.** *Innovación* | **426.107** Berrikuntza eta Lehiakortasuna<br>**426.107** *Innovación y Competitividad* |

Helburu hauek ditu Berrikuntzaren aurrekontuko egitarauak:

- Bizkaiko enpresen lehiakortasuna bultzatzea, produktuak eta prozesuak berritzeko proiektuetarako laguntza emanez, baita loturiko inbertsio produktiboak babesteko ere. Berrikuntza teknologiko eta ez-teknologikoa (antolaketa, merkatua, negozio eredua…) ere bultzatzen da.
- Enpresek berrikuntza-ahaleginak sistematiza ditzaten sustatzea, berrikuntza iraunkorrerako eta orientazio estrategikorako gaitasunak eta metodologia txertatuz.
- Bizkaiko enpresei laguntzea digitalizazioaren erronkari eta ekoizpen eta kontsumo ereduetarako trantsizioaren erronkari aurre egiteko ahaleginetan, ingurumenean ahalik eta eragin txikiena izan dezaten.
- Manufaktura industriaren sektorearen modernizazioa sustatzea, ekoizpenaren eraginkortasuna hobetzeko eta sektorea malguagoa egiteko. Industria enpresak 4.0 industriara igarotzea bideratzea, enpresek ildo horretan dituzten beharrak antzemateko berariazko ekintzen eta industriaren modernizazioa sustatzeko ekimenen bidez.
- Teknologia jakintza zentroen eta enpresen artean transferitzeko mekanismoa bultzatzea eta hobetzea.
- Kudeaketa sistemen hobekuntza bultzatzea. Horretarako, ekimenak garatuko dira beste eragile eta administrazio batzuekin elkarlanean.
- Ezagutza eta enplegu asko dauzkaten Bizkaiko balio kateak sendotzea.

El programa presupuestario de Innovación se plantea los siguientes objetivos:

- Impulsar la competitividad de las empresas de Bizkaia, apoyando el desarrollo de proyectos de innovación en producto y proceso, tecnológica y no tecnológica (en organización, en mercado, modelos de negocio…), así como apoyando las inversiones productivas asociadas.
- Potenciar que las empresas sistematicen sus esfuerzos de innovación, incorporando capacidades y metodología para una innovación sostenida y con orientación estratégica.
- Apoyar a las empresas de Bizkaia en sus esfuerzos para afrontar el reto de la digitalización y el de la transición hacia modelos de producción y consume que minimizan el impacto en el medio ambiente.
- Fomentar la modernización del sector manufacturero para incrementar la eficacia de la producción y aportar flexibilidad al sector. Favorecer el tránsito de las empresas industriales a la denominada industria 4.0, mediante acciones específicas para detectar las necesidades de las empresas para avanzar en esta línea e iniciativas de fomento de la modernización industrial.
- Impulso y mejora de los mecanismos de transferencia de tecnología entre los centros de conocimiento y las empresas.
- Impulso de la mejora de los sistemas de gestión, para lo que se desarrollarán iniciativas en colaboración con otros agentes y administraciones.
- Fortalecimiento de cadenas de valor intensivas en conocimiento y empleo en Bizkaia.

- Berrikuntzarako enpresen arteko lankidetza bultzatzea, sentsibilizatzeko, gaitasunak arakatzeko eta erronkak nahiz intereseko eremuak identifikatzeko, horiek, gure ustez, balio erantsi garrantzitsua baitakarte. Lankidetza prozesu horrek bide ematen duenean, negozio aukerak identifikatu eta garatu behar dira, eta negozio ereduak definitu behar dira merkatuan jartzeko.

- Kanpoko merkatu berrietara irteten diren enpresen ekimenetarako laguntza ematea.

- Kanpora irteteko prozesuan beste herrialde batzuetako enpresekiko lankidetza erraztuz ETEak mugiaraziko dituzten eta lagun egingo dieten erakundeen proiektuak sustatzea.

- Argibideak ematea, nazioarteko merkatuetan jardunean nola hasi behar den azalduz, eta, halaber, kanpoko merkataritzari buruzko zalantza teknikoei erantzutea.

- Erakunde arteko harremanetan aritzea, nazioarteko misioak eginez herrialde estrategikoetara, gero enpresak errazago sar daitezen merkatu horietan.

- Berrikuntza, digitalizazioa, iraunkortasuna edota nazioartekotzeko proiektuetarako banku finantzaketa erraztea, Elkarrekiko Berme Sozietateekin elkarlanean arituta.

- Enpresak Bizkaian finkatzen laguntzea, arrisku-kapitaleko tresnen bidez, familia enpresarien gobernantza hobetzeko prozesuetan lagunduz eta sozietatea berregituratzen ari diren enpresetan esku hartuz.

- Impulsar la colaboración entre empresas para la innovación con el objetivo de sensibilizar, explorar las capacidades, identificar retos y ambitos de interes que suponen, a nuestro entender, un valor añadido importante. Cuando este proceso de colaboración lo permita, identificar oportunidades de negocio, desarrollarlas y definir modelos de negocio para puesta en el mercado.

- Apoyar los esfuerzos de las empresas que acceden a nuevos mercados exteriores.

- Acompañar proyectos de entidades que movilicen y acompañen a las pymes en su proceso de salida al exterior, facilitando la colaboración con empresas de otros países.

- Proporcionar información sobre como comenzar a operar en los mercados internacionales, así como responder a las dudas técnicas en materia de comercio exterior.

- Realización de contactos institucionales, a través de misiones internacionales a países estratégicos, que faciliten la posterior introducción de empresas en dichos mercados.

- Mejora del acceso a financiación bancaria para proyectos de innovación, de digitalización, de sostenibilidad y de internacionalización, mediante colaboración con Sociedades de Garantía Recíproca.

- Contribuir al arraigo de empresas en Bizkaia mediante instrumentos de capital riesgo, mediante el apoyo en procesos de la mejora de gobernanza de las familias empresarias y mediante la intervención en empresas en procesos de reestructuración societaria.

- Bizkaiko Lurralde Historikoaren posizio lehiatzaile eta berritzailea hobetzen laguntzen duten proiektu estrategikoak bilatzea eta bultzatzea, enpresetako gaitasun ikertzailea eta I+G+b-rako gaitasuna garatzeari arreta berezia emanez, Bizkaiko garapen orekaturako lehentasunekoak diren arloetan.

- Bizkaiko berrikuntzaren eta ekonomia-sustapenaren ekosistemako bitarteko agenteen egitasmoak bultzatzea, enpresen lehiakortasunerako eta gizarte- eta ingurumen-jasangarritasunerako giltzarriak diren erronkak jorratzeko.

- Apoyo a proyectos estratégicos para Bizkaia, como el AIC - Automotive Intelligence Center, centro de innovación colaborativa específico para el sector de Automoción; o el CFAA – Centro de Fabricación Avanzada Aeronáutica, centro de demostración y validación de tecnologías aeronáuticas; el NIC – Nagusi Intelligence Center – orientado a impulsar un nuevo sector de actividad en torno al envejecimiento, la salud y los cuidados de larga duración, o el EIC-Energy Intelligence Center, en diversos ámbitos relacionados con la producción, distribución y consumo de energía.

- Enpresekiko harremanak gehitzea; horrela, haien beharrizanen berri edukiko dugu, Sailaren proposamenak aurkeztuko dizkiegu eta proposamenok moldatu ahal izango ditugu.

- Enpresen eta sistemako gainerako eragileen arteko sormena eta topaguneen garapena bideratzea, esperientziak partekatzeko eta jarduketa eraginkorragoa izateko errealitatea hobeto ulertze aldera.

- Búsqueda y apoyo a los proyectos estratégicos que permitan mejorar la posición competitiva e innovadora del Territorio Histórico de Bizkaia, con particular atención al desarrollo de la capacidad investigadora y de I+D+i en empresas, en sectores prioritarios para el desarrollo equilibrado de Bizkaia.

- Impulso a las iniciativas de agentes intermedios del ecosistema de innovación y promoción económica de Bizkaia para el abordaje de retos clave para la competitividad empresarial y la sostenibilidad socioambiental.

- Apoyo a proyectos estratégicos para Bizkaia, como el AIC - Automotive Intelligence Center, centro de innovación colaborativa específico para el sector de Automoción; o el CFAA – Centro de Fabricación Avanzada Aeronáutica, centro de demostración y validación de tecnologías aeronáuticas; el NIC – Nagusi Intelligence Center – orientado a impulsar un nuevo sector de actividad en torno al envejecimiento, la salud y los cuidados de larga duración, o el EIC-Energy Intelligence Center, en diversos ámbitos relacionados con la producción, distribución y consumo de energía.

- Fomento del contacto con las empresas para conocer de primera mano sus necesidades, acercarles las propuestas del Departamento y para adecuarlas a las mismas.

- Favorecer la creación y el desarrollo de puntos de encuentro entre empresas y demás agentes del sistema, para compartir experiencias y debatir sobre todas aquellas cuestiones que permitan comprender mejor la realidad para tener una actuación más eficaz.

| SAILA / *DEPARTAMENTO* | ATALA / *SECCIÓN* | FUNTZIONALA / *FUNCIONAL* |
|---|---|---|
| **08. Ekonomia Sustazeko**<br>**08.** ***Promoción Económica*** | **02.** Berrikuntza<br>**02.** *Innovación* | **426.107** Berrikuntza eta Lehiakortasuna<br>**426.107** *Innovación y Competitividad* |

Ondoren azalduko dira Berrikuntza Zerbitzuak 2022ko ekitaldian eginiko jarduerak:

– Berrikuntzari, nazioartekotzeari eta inbertsioari laguntza integrala emateko 2022ko (3i) programa onestea eta izapidetzea. Berrikuntzari, nazioartekotzeari eta inbertsioari laguntza integrala emateko programa bat da, lehiakortasuna hobetze aldera. Bizkaiko enpresei zuzentzen zaie. 2022ko deialdian 33 eskaera jaso dira, eta 17 proiektu diruz lagundu dira.

– Sustapen Programa eta inbertsio aurreratua (2i) 2022 kudeatzea.

Bizkaiko enpresak lehiatzeko, berrikuntzarako eta teknologikoki aurreratuak diren inbertsioak egiteko duten ahalmena handitzera dago bideratuta programa, berrikuntza proiektuen bidez, bai proiektu teknologikoetan, bai teknologikoak ez direnetan, erakundearen edozein arlotan (prozesua, produktuak, antolaketa, partaidetza, merkatua, jabetza industrialaren babesa...), erakundearen negozio ereduarekin bat etorrita eta eragin handia izanda.

165 eskabide jaso dira, eta 5-100 langile dituzten enpresen 127 proiektuetarako laguntza eman da.

– Enpresak digitalizatzen eta produktu eta eragiketen ingurumen-inpaktua murrizten laguntzeko programa baten beste edizio bat. Trantsizio Digitala eta Berdea programa da, eta 4 dirulaguntza lerro ditu: ingurumena digitalizatzeko edo berritzeko planak, oinarrizko digitalizazioko proiektuak, digitalizazio aurreratuko proiektuak eta ingurumen- eta ekonomia-berrikuntza zirkularreko proiektuak

Las principales actividades realizadas desde el Servicio de Innovación durante el ejercicio 2022 han sido las siguientes:

– La aprobación y tramitación del Programa de apoyo integral a la Innovación, Inversión e Internacionalización (3i) 2022. Se trata de un programa de apoyo integral a la innovación, inversión e internacionalización para la mejora de la competitividad. Está orientado a empresas de Bizkaia. En la convocatoria de 2022 se han recibido 33 solicitudes y se han apoyado 17 proyectos.

– Gestión del Programa de Promoción y la Inversión avanzada (2i) 2022.

El programa subvenciona actuaciones orientadas a incrementar la capacidad de las empresas de Bizkaia para competir, innovar y realizar inversiones tecnologicamente avanzadas mediante proyectos de innovación, tanto tecnológicos como no tecnológicos en cualquier área de la entidad (proceso, producto, organización, participación, mercado, protección de la propiedad industrial...) coherentes con el modelo de negocio de la entidad y con alto impacto.

Se han recibido 165 solicitudes y se han apoyado 127 proyectos de empresas entre 5 y 100 personas.

– Nueva edición de un programa para apoyar la digitalización de las empresas y la reducción del impacto ambiental de sus productos y operaciones. Se trata del programa Transición Digital y Verde que cuenta con 4 líneas de subvenciones: planes de digitalización o innovación ambiental, proyectos de digitalización básica, proyectos de digitalización avanzada y proyectos de innovación ambiental y económica circular.

2022ko deialdian eskaerak jaso dira, eta proiektuak babestu dira, ondoren jasotako kopuruetan:

En la convocatoria 2022 se ha recibido solicitudes y se han apoyado proyectos en las cantidades recogidas a continuación:

| Lerroa/ Línea | Eskabideak/ Solicitudes | Lagundutako proiektuak/ Proyectos apoyados |
|---|---|---|
| Planak/ Planes | 69 | 41 |
| Oinarrizko digitalizazioa/ Digitalización básica | 207 | 175 |
| Digitalizazio aurreratua/ Digitalización avanzada | 20 | 10 |
| Ingurumen berrikuntza/ Innovación ambiental | 7 | 3 |

– Txekeo Teknologikoen Programa (TX) 2022 deialdian. Enpresak bere produktu edo ekoizpen prozesuetako batean antzemandako arazo konkretu baten gainean agente teknologiko batek eginiko aholkularitzarako laguntza ematen du programak. 14 eskabide jaso dira, eta horietatik 12k jaso dute laguntza.

– Convocatoria del Programa Chequeos Tecnologicos (TX) 2022. El programa apoya el asesoramiento realizado por un Agente Tecnológico sobre un problema concreto detectado por la empresa en uno de sus productos o procesos productivos. Se han recibido 14 solicitudes de los cuales se han apoyado 12.

– 2022ko Transferentzia Teknologikoa programa berriro abiaraztea, ikerketa-zentroei zuzendua. Ikerketa-zentroek gauzatutako I+G proiektuak babesten ditu, eta enpresei ezagutza azkarrago igaratzon saiatzen da, ikerketa-ahaleginen emaitzak eraginkortasunez ustiatzeko. 9 eskaera jaso dira, eta horietako 6 babestu dira.

– Reedición del programa Transferencia Tecnológica 2022, destinado a los centros de investigación, que apoyan sus proyectos de I+D y trata de acelerar el traspado de conocimiento a empresas, para explotar de forma eficaz los resultados de los esfuerzos de investigación. Se han recibido 7 solicitudes, de las que han sido apoyadas 6.

– Elkarlanean Lankidetzarako Berrikuntza 2022 sustatzeko programa gauzatzea. Programa honek enpresen arteko berrikuntza proiektuak eta baterako negozio aukerak identifikatzea sustatzen du.

  2022ko deialdian, 5 eskabide jaso dira, enpresen lankidetzako berrikuntza proiektuak identifikatzeko, eta 4 proiektutarako laguntza eman da.

– Ejecución del Programa para el fomento de la Innovación en Cooperación Elkarlanean 2022, que apoya proyectos de innovación interempresarial e identificación de oportunidades de negocio conjunta.

  En la convocatoria de 2022 se han recibido 5 solicitudes para identificar la proyectos de innovación cooperativa empresarial y se han apoyado 4 proyectos.

- Innobideak-Kudeabide Plana (KU) 2022 kudeatzea, Eusko Jaurlaritzak, SPRIk eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Aldundiek elkarrekin hasitako baterako ekimena, Kudeaketa Aurreratuko Ereduarekiko erkaketaren ondoriozko kudeaketa hobetzeko proiektuei laguntzeko. Berrikuntza Zerbitzuak kudeaturiko esparruan (5-49 langileko enpresak), 60 eskabide jaso dira, eta 57 proiektu diruz lagundu dira.

- ETEak nazioartekotzeko programa izapidetzea. Historia luzeko programa da, eta enpresa bat azken urteetan nabarmen esportatu ez duen herrialde batean sartzen laguntzen du. 2022ko edizioan, programak 77 eskaera jaso ditu, eta 61 proiekturi eman zaie laguntza.

- Nazioartekotze Partzuergoak Sustatzeko programa berrargitaratzea. Programa horretan bitarteko erakundeek gauzatutako proiektuak diruz laguntzen dira. Proiektu horietan hainbat enpresari nazioarteko presentzia-ekintzei elkarrekin ekiteko aukera ematen zaie, merkatu berrietara sarbidea eduki dezaten. 2022ko edizioan 11 eskaera jaso dira, eta horietatik 10 babestu dira.

- Programa berri bat ateratzea, enpresa-arloko bitarteko agenteei zuzendutakoa, enpresa-egitura dinamizatuz erronka sozioekonomiko giltzarri jakin batzuei erantzungo dieten proiektuei euskarria emateko. 2022an, 10 eskaera jaso dira, eta horietatik 7 babestu.

Halaber, beren ezagugarri berezi edo estrategikoen ondorioz arreta berezia behar duten bananako proiektuekin harreman zuzena eta babesa izaten jarraitzen da. Jarraian, labur-labur deskribatuko ditugu proiektu horiek, 2 multzotan. Bakarrik zerrendatzen dira 2022an aurrekontu zuzkidura eduki duten proiektuak.

- La gestión del Plan Innobideak-Kudeabide (KU) 2022, iniciativa conjunta del Gobierno Vasco, SPRI y las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa, de apoyo a proyectos de mejora de gestión derivados del contraste contra un Modelo de Gestión Avanzada. En el ámbito gestionado por el Servicio de Innovación (empresas de 5 a 49 empleadas/os) se han registrado 60 solicitudes y se han apoyado 57 proyectos.

- Tramitación del programa de Internacionalización de pymes. Se trata de un programa de dilatada historia, que apoya la entrada de una empresa en un país al que no haya exportado significativamente en los últimos años. En la edición 2022 este programa ha recibido 77 solicitudes y se han apoyado 61 proyectos.

- Reedición del programa Fomento de Consorcios de Internacionalización, en el que se apoya a organismos intermedios que organizan actividades que permitan a grupos de empresas abordar conjuntamente acciones de presencia internacional que les den acceso a nuevos mercados. En la edición 2022 se han recibido 11 solicitudes, de las que se han apoyado 10.

- Lanzamiento de un nuevo programa, dirigido a agentes intermedios de carácter sectorial empresarial, en el que se apoyan los proyectos que den respuesta a determinados retos socioeconómicos clave, mediante la dinamización del tejido empresarial. En 2022 se recibieron 10 solicitudes, para apoyar 7 de ellas.

Asimismo, se mantiene el apoyo y la relación directa con aquellos proyectos individualizados que por sus características especiales o estratégicas precisan de una especial atención. A continuación hacemos una breve descripción de los mismos, en 2 bloques. Se relacionan únicamente los proyectos con dotación presupuestaria en 2022.

| SAILA / *DEPARTAMENTO* | ATALA / *SECCIÓN* | FUNTZIONALA / *FUNCIONAL* |
|---|---|---|
| **08. Ekonomia Sustazeko**<br>**08. *Promoción Económica*** | **02.** Berrikuntza<br>**02.** *Innovación* | **426.107** Berrikuntza eta Lehiakortasuna<br>**426.107** *Innovación y Competitividad* |

## Berrikuntzarako azpiegitura estrategikoak

– Ezkerralde-Meatzaldeko Parke Teknologikoan EIC Energy Intelligence Centre-ren eraikina eraikitzen hastea, eta EIC proiektuaren eta haren unitate tematikoen kontzeptualizazioan sakontzeko lanak, bereziki Ingeniaritza Aurreratuko Zerbitzuei lotutakoa.

– Laguntzak ematea Automotive Intelligence Centre (AIC) fundazioari, Boroako AIC proiektuko IV. fase~~ak~~ eraiki eta martxan jartzen di~~re~~la finantzatzeko.

– Laguntza espezifikoa ematea AFAZ – Aeronautikako Fabrikazio Aurreratuko Zentroari, instalazioak egokitu ditzan.

– BEAZ SAU foru-sozietateak Urduliz dorrean kudeatzen duen Nagusi Intelligence Centre (NIC) zentroaren jarduerak garatzen laguntzea.

– Bizkaiko Foru Aldundia BRTA – Euskal Partzuergo Zientifiko Teknologikoan parte hartzea.

## Enpresa berrikuntzaren eta nazioartekotzearen sustapena

– “123 Berrikuntza” komunikazio kanpaina.

– “Barrixe” Berrikuntza Behatokia, Bilboko Merkataritza Ganberaren laguntzaz.

– BizkaiExt nazioartekotzeari buruzko kontsulta zerbitzua, Bilboko Merkataritza Ganberarekin lankidetzan.

## Infraestructuras estratégicas para la innovación

– Inicio de la construcción del edificio del EIC Energy Intelligence Centre en el Parque Tecnológico de Ezkerralde-Meatzaldea, y trabajos para profundizar en la conceptualización del proyecto EIC y sus diferentes unidades temáticas, en particular la vinculada a Servicios de Ingeniería Avanzada.

– Ayudas a la Fundación Automotive Intelligence Centre (AIC) para la financiación de la construcción y puesta en marcha de la Fase IV del proyecto AIC en Boroa.

– Un apoyo específico al Centro de Fabricación Avanzada Aeronáutica (CFAA) para la adecuación de sus instalaciones.

– Contribución para la desarrollo de las actividades del Nagusi Intelligence Centre (NIC) gestionado por la sociedad foral BEAZ SAU en Torre Urduliz.

– Participación de la Diputación Foral de Bizkaia al BRTA – Consorcio Científico-Tecnológico Vasco.

## Fomento de la innovación y la internacionalización empresarial

– Campaña de comunicación “123 Innovación”.

– Observatorio de la innovación “Barrixe” en colaboración con la Cámara de Comercio de Bilbao.

– Servicio de consultas sobre internacionalización BizkaiExt, en colaboración con la Cámara de Comercio de Bilbao.

| SAILA / *DEPARTAMENTO* | ATALA / *SECCIÓN* | FUNTZIONALA / *FUNCIONAL* |
|---|---|---|
| **08. Ekonomia Sustazeko**<br>**08. *Promoción Económica*** | **02.** Berrikuntza<br>**02.** *Innovación* | **426.107** Berrikuntza eta Lehiakortasuna<br>**426.107** *Innovación y Competitividad* |

- Industrial Marketing Centre izeneko ekimena sustatzea, Industria marketina bultzatzeko zentro hori Bilboko Merkataritza Ganberako Negozio Eskolak garatu du, ESICekin lankidetzan.

- Cebek konfederazioaren eta Bizkaiko beste elkarte sektorial batzuen Ekinbarri egitasmoa bultzatzea, enpresetako lantaldeak dinamizatzen laguntzeko, parte-hartzea ugaritu dadin eta errendimendua nahiz pertsonen arteko harremanak hobetu daitezen.

- Cebek-en Objetivo 2030 Helburu proiektua, enpresak jasangarritasunaren eta Garapen Jasangarrirako Helburuen garrantziaz jabetu daitezen eta helburuotan gehiago laguntzeko urratsak eman ditzaten.

- Enpresetan berdintasuna sustatzeko bi proiektu, Cebek-ek eta Bizkaiko Emakume Enpresaburuen eta Zuzendarien Elkarteak sustatutakoak. Proiektuotan, estereotipoak aldatzea sustatzen da, eta, zehazki, emakumeak enpresetako zuzendaritza- eta gobernu-organoetan egotea bultzatzen da, organo horietan dauden emakumeak ikusgai eginez.

- Euskadiko Lan Sozietateen Elkarteak sustatutako proiektu bat, zeinaren helburua baita enpresei jarraitzen laguntzea, belaunaldiarteko errelebo naturala erraza ez den kasuetan.

- Enpresentzako abal lerro bat mantentzea, eraldaketa digitalerako eta ingurumen berrikuntzako eta berrikuntza ekologikoko proiektuetarako, Elkargirekin.

- Soluzio teknologiko digitalak lankidetzan garatzeko proiektu pilotua, soluzioen eskari taldeak harremanetan jarriz balizko soluzio digital aurreratuen hornitzaile taldeekin, GAIA klusterrak dinamizatuta.

- Apoyo al Industrial Marketing Centre, un centro de impulso del marketing industrial desarrollado por la Escuela de Negocios de la Cámara de Comercio de Bilbao, en colaboración con ESIC.

- Impulso de la iniciativa Ekinbarri, de Cebek y otras asociaciones sectoriales de Bizkaia, para apoyar a la dinamización de los equipos de trabajo de las empresas, ampliando la participación y mejorando el rendimiento y las relaciones interpersonales.

- Proyecto Objetivo 2030 Helburu, de Cebek, para concienciar a las empresas de la centralidad de la sostenibilidad y los Objetivos de Desarrollo Sostenible, y facilitar que den pasos para mejorar su contribución a ellos.

- Dos proyectos para el fomento de la igualdad en las empresas, promovidos por Cebek y la Asociación de Empresarias y Directivas de Bizkaia. En ellos se promueve un cambio de estereotipos y, en particular, se visibiliza y fomenta la presencia de las mujeres en órganos directivos y de gobierno de las emrpesas.

- Un proyecto promovido por la Asociación de Sociedades Laborales de Euskadi (ASLE) para favorecer la continuidad de las empresas en casos en que no sea sencillo un relevo generacional natural.

- Mantenimiento de una línea de avales a empresas para su transformación digital y sus proyectos de innovación ambiental y ecológica, con Elkargi.

- Proyecto piloto de desarrollo de soluciones tecnológicas digitales en colaboración, poniendo en contacto grupos de demanda de soluciones con grupos de proveedores de potenciales soluciones digitales avanzadas, dinamizado por el cluster GAIA.

- Bizkaiko enpresa-familien gobernantza hobetzeko esplorazio-proiektua, lurraldean familia-enpresen errotzea sendotzeko, AEFAME Euskadiko familia-enpresaren elkartearen gidaritzapean.

- Esperientzia pilotua, non LH dualeko ikasleek ETHAZI metodologiaren problemak ebazteko gaitasunak erabiltzen dituzten enpresetan berrikuntza-proiektuak dinamizatzeko. HETELek, Euskadiko Lanbide Heziketa Teknikoko ikastetxeen elkarteak, abian jarritako proiektua da

- Lau aholkularitza-enpresarekin esparru-hitzarmen bat formalizatzea, arrisku- edo aukera-egoeran dauden Bizkaiko enpresen ekonomia-, ekoizpen- eta finantza-egoeraren diagnostikoa egiteko eta, halaber, enpresa horien bideragarritasun- edo garapen-proposamenak egiteko. Bide horretan, hiru enpresatan hartu da esku.

- ABE Private Equity Fund FCR funtsari egindako ekarpena, hazkunde fasean dauden ETEak finantzatzeko partaidetza publiko eta pribatuarekin.

Kontuan hartuta luzatu egin direla COVID-19aren pandemiari erantzuteko ezarri ziren mugikortasun-murrizketek ekonomia eten ostean hasiera batean sortutako zailtasun ekonomikoak eta zailtasun horiek jarraitu egin dutela bai hornidura-kateak hausteagatik, bai lehengaien eta energiaren prezioak igotzeagatik, bai Ukrainako gerra lehertzeagatik, 2022an berritu egin da ETE-ei laguntzeko zerbitzua, Elkargirekin lankidetzan, enpresa horiek finantza-erakundeekin dituzten maileguak berritu daitezen eta gabeziak eskuratu ditzaten.

- Proyecto exploratorio para mejorar la gobernanza de las familias empresarias de Bizkaia para consolidar el arraigo de las empresas familiares en el territorio, liderado por AEFAME, la asociación de la empresa familiar de Euskadi.

- Experiencia piloto en la que alumnado de FP Dual utiliza las capacidades de resolución de problemas de la metodología ETHAZI para dinamizar proyectos de innovación en empresas. Es un proyecto puesto en marcha por HETEL, la asociación de centros de formación técnico profesional de Euskadi

- Formalizacíon de un Acuerdo Marco con cuatro empresas de consultoría para realizar el diagnóstico de la situación económica, productiva y financiera de las empresas de Bizkaia en situaciones de riesgo o de oportunidad, junto con la formulación de posibles propuestas de viabilidad o desarrollo de dichas empresas. Por esta vía se ha intervenido en tres empresas.

- Aportación al fondo ABE Private Equity Fund, FCR, con participación Público-Privado para financiación de pymes en fase de crecimiento.

Habida cuenta de la prolongación de las dificultades económicas inicialmente debida a la paralización de la economía por las restricciones a la movilidad para dar respuesta a la la pandemia de COVID-19, y prolongada sucesivamente por las roturas de cadenas de suministro, el incremento de precios de materias primas y energía y el estallido de la guerra en Ucrania, se ha renovado en 2022 el servicio de apoyo a las pymes para la novación de sus préstamos con entidades financieras y obtención de carencias, en colaboración con Elkargi.

| SAILA / *DEPARTAMENTO* | ATALA / *SECCIÓN* | FUNTZIONALA / *FUNCIONAL* |
|---|---|---|
| **08. Ekonomia Sustazeko**<br>**08. *Promoción Económica*** | **02.** Berrikuntza<br>**02.** *Innovación* | **426.107** Berrikuntza eta Lehiakortasuna<br>**426.107** *Innovación y Competitividad* |

Azkenik, Bizkaiko Foru Aldundiaren zeharkako lehentasunen inguruan ezarritako batzordeetan hartu da parte (emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna, gazteria, ingurumena,...), eta horien planteamenduak hartzen dira kontuan jarduerak egiteko, baita laguntzen egitarauak baloratzeko irizpideak eta informazioa biltzeko eta kudeatzeko irizpideak ere.

Hori guztia Zerbitzuari atxikitako pertsonen etengabeko trebakuntzaren aldeko apustua eta bezeroekin, aholkulariekin eta enpresekin harremanak izateko bideak ezartzea ahalbidetzen duten ekintzen garapena ahaztu barik.

Finalmente, se participa en las comisiones establecidas en relación con las prioridades transversales de la Diputación Foral de Bizkaia (igualdad de de oportunidades entre mujeres y hombres, juventud, medioambiente...) y se tienen en cuenta sus planteamientos en el desarrollo de actividades, de criterios de valoración de programas de ayudas y de recogida y gestión de la información.

Todo ello sin olvidar la apuesta por la formación permanente de las personas adscritas al Servicio y el desarrollo de acciones que permitan establecer canales de comunicación con clientes y personas consultoras y empresas.